Euzkotar umien aldez

Decroly osagilliaren-irakurten irakasteko ikus-gogai-era

"Ume-iztijak amai-bako soñkundea eskatzen dau. Augaitik, irakasle burutsubak muga zañen bañuban zirkiñik egin ezinda, urten dagi muga bako Ume-iztijen zelai bañijetara."

Claparéde

Ara emen ikusgogai-era zaliak izki-era zaliari emoten deutsiezan erantzupenak.

a) Ikastolara eztabe umiak utzik egin biaf gexorik egon ezik, ez txiroak ez aberatsak.

Ume askori batera ez yake gauf egunian iñun irakasten. Irakasle bakotxendako eun edo eun da ogei umedun ikastolarik ez da Europa'n ikusten, España'n edo izan ezik.

Decroly-ereaz izki-eraz baxen arin edo ariñago erakutsi leike. Nekezago edo astiruago erakusten ba'da eurena ez da efuba, irakaslariena baño, ondo erabiltzen ezdaualako da ta.

g) Ori esatia lelokeri ikaragafi bat esatia da. Alderantzira ba'litz ,zijo ofek gafantzi andija leuke, ba ia ofetara ez dau bape indafik, edonok dakijalako buru gaxoentzat ona dan era buru sanuentzat obiagua ixango dala.

Ori esatia auxe esatia beste da. "Osagiliak esan deusku gure gaxuari aize asko aftzia jatofkola ondo, jan ondoren biafik ez egiña, astiro jatia, agotik barik zudufetik arnasa-aftzia, baña gauza ofeik gustijok gexuentzat onak diran afen ez dakigu ba osasuntzuentzat onak ixango diran."

k) Zuek lez oldoztu ba'lebe gure asabak oraindik euren eran bixiko gintzakez.

Tximist-argija asmatu zanian esan ba 'leben: "Bai dakigu tximist argija edefa dana, garbija, zurija, erabiltzen efeza baña gu geu kurtzaulaz ondo gagoz eta ez goyaz aldakuntzarik egiten."

Edo: "Beribila gauza ona da, ondo ibiltzen da ta arin baña, gu geu oñez ibiltzen ekanduta gagoz eta ez guaz biribilan saftu be egiten."

Danok onetara oldoztu ba'genduban, ez genduban, ez burdin-biderik, ez tximist-argirik, ez... ezerbe ixango.

Era bategaz ondo ibili afen beste bat obiagua ete dan ikusteko egin biafa dogu irakasliok, osagiliok, idazlarijok, olerkarijok eta burubaz lana dagigun gustijok. Eskuakaz lana egiten dabenak bardin, ludija auferakuntzako bidietatik atara ta atzerakixunen geltokijan itxi gura ez ba'dogu.

Asi zadi gogo onak ,egixuz alegiñak, ekijozu, ta ikusiko dozu zelan, lenengotan ain gatxa ereixten eutzozan era bafi ori, izki-era baxen ondo menperatuko dozun eta zelan zure ikastolan ikus-gogai-erak garaituko daben.

Onaraño eldu ezkeroz, ez dozu geyago izki-erarik erabili gurako iguiña aftuko deutzozu ba ta.

卐 卐 卐

Ara orain, irakufle, batez-be irakaslaria ba'zara, era bafi au zegafik neuk ain bero aldeztuten dodan.

Nere ustez Decroly'n era au irakuftenerakusteko onena da ta ezin uleftu ixaten dot ezagutu ezkero erabili gura ez daben irakaslerik zelan egon leikian be.

Ume-izti edo Pedagogia'ko lenengo egtjak aonetxek direz: *Umiari irakatsi beaf yakola efezetik azi ta gatxerantz. Gauza ezagunetik asi ta ezezagunerantz. Ikusi, edo ikutu, edo aftu, geinkezan gauzetik, geure irudimenaz bakafik ikusi edo uleftu geikezan gauzetara.* Au da efderaz "de lo concreto a lo abstracto" esaten yakon lagija.

¿Beteten al dauz lagi oneik irakufteneraksteko izki-erak? Ez, ez dauz beteten.

¿Izkija ala itz osoa da umientzat esagunagoa? Itz osoa.

¿Zer edo nundik daki umiak r, m, g, zer diran? Iñundik be ez.

¿Izki ofen ixenak zer softu eraso leikio umiari bere adimenian? Ezer be ez.

Alderantzira, tx, k, m, f, iñoiz entzun ez dauzan umiak, *txakufa*, itza entzun ete dau? Bai anei bidaf be.

Tx, a, k, u, f, zer diran ez dakijan umiak ¿txakufa zer dan bai ete daki? Bai beintzat, ondo be.

Eta p, t, s, j, ta abaf izkijen ixenak bere adimenian ezer softu erasoten ez dautsien umiei, *pelota, txakufa, ogija, sagafa* ta abaf itzak gogairik softu eraso al leikijoe. Bai orixe.

Ara ba Decroly'n eraren oin afija, jakintzaren bafuban iñork ukatu ezin leikiana: IKUS-GOGAI-ERAK, UME IZTIAK ESKATZEN DAUZAN LAGI DANAK, BETETZEN DAUZ. IZKI ERAK OSTERA BAT BE EZ.

Decroly'n era txafestu gura dabienak au olan eztala agefitu begije ta gero itz egingo dogu.

Beste gauza bat. Ume batek *ama, txakufa,, zugatza* itzok entzuten dauzanian, gauzok oso-osorik ikusten dauz bere adimenian, txakuf osoa, ama osoa zugatz osoa ta ez bi edo iru zatifan, izki-eran ipintzen yakozan lez txa-ku-fa, zu-ga-tza, a-ma.

Decroly-era onen jakintza-oñafia (fundamento científico) auxe da: *Umiari itz baten durundijak, belafija bide dala adimenera erakaften deutson gogaya, bardin-bardin, idazkun batek, begija bide dala, erakafi leikijola. .. ..*

Esaterako, *txakufa* durundija entzuten dabenian, lau anka, buztan, uledun etxeko atean egon oi dan abena gogoratzen yakon lez, bardin-bardin *txakufa* lefo oneik idatzita ikusi ezkero abere ber-bera gogoratu beaf yakola.

Batean belafijak dagian lana, bestean begijak dagi.

Etxeko atean dagoan txakufen gogorapenak zer ikusi bardiña dau bere ixenen durundijaz eta bere ixenen idazkunaz.

Eta jakintza oñafi oni, Arkimedes'en palankiaz be ezin leyo zirkiñik eragin.

Onetan ez dago ba ezta-baidarik. Ezta-baidak egon leikez era erabilfeko gayetzaz, au da, efderaz "punto práctico del método" esaten yakon gayetzaz bakafik.

AÑITOKIETA

(Dafaike.)

ERRIJETATIK

ARRONA

ASTEKO BEÑIAK.—II onen zortzian tranbiak ugariiu dituzte ta askori on izango zayolako, ara Iraeta'ko geltokian zer orduetan izango diran.

Zumafaga aldera: 7,47 (kofeoa), 9,25, 10,42, 12,33, 14,47, 16,55 (kofeoa), 19,19, 20,45.

Zumaya aldera: 7,05 (kofeoa), 8,36, 10,06, 11,22, 13,58, 14,55, 17,58 (kofeoa), 20,19.

—Erentxun erakusle azkafak emen dituzu. ¡Ongi etofi!

—Baltxola-befiko Lafañaga'taf Iñaki'ren ileta asteaftean egin zan.

—Gariyak ebaki dituzu baita txoftatu ere.

IZPAÑKARI

SANTANDER

BARKILERUAK.—¿Zeñek ez ditu ezagutzen barkileruak? ¿Ez zutela ordea bat ere afkitzen Santander'kua ez dana? Ludi gustian dabiltzan barkileruak emenguak dira. Laisteñ juan beafko naiz ni ere, "bonbo" bat bizkafean dedala, efiz-efi, ia "ofizio" oberik bilatzen dedan... (Jestora baten atzetik nabil. Ez esan iñori, ¿e?)

¡TRAPERO!—Onelakuak ere ezagutuko dituzu, ezta ala ,irakufle? Ba onelakuak ere emendik irteten dira deadafka: ¿Hay quien venda algo por ahí? ¡Todo se compra!

¿Ala ere ezin dala bizi? Ba orduan beste onekin:

¡Firulirulirulilii! ¡Afilador! ¡Paragüero! ¿Zer ba? ¿"Ofizio gutxi dakitela uste al dezu? Bai zera. "Ofizio" oiekin jaftzen da bidean ,ta efiz-efi dabil "dando la vuelta al mundo" Euzkadi bezelako txoko bat afkiiu afte.

¡Zenbat onelako juan ote da Euzkadi'ra?

Ara iritxi, ta jakiña, bi efialian lanian asi. Ta euzkotafok bi efialekin ezin bizi ba, zapaburuak ere geiago beaf dute ta... ta banan banan zeinbat euzkotaf Euzkadi'tik kanpora?

Ta ez daukazute ikusi besterik, euzkotafak ez guaz iñora ez "barkilero" ez "trapero" ,ez "afiladore", baizik beste biaf batzuetara, geienian beintzat buru geixcago beaf dan lanetara.

Ez dezute ordea ori bakafik ikusi biaf, ba ori baño "inportantzi" geiagokoa dezute au. Afotzak, mingain labanez, ondo itzegiñaz, "pelotila" sendoak egiñaz saftu izan dira of geienean ,gero subea bezela burua zutik ,goruntz begira, guziai, bertakoai goitik bera begiratzeko... Atzefian dabiltzan euzkaldunak befiz. iñoren etxian agindu nairik gabe, beren biafian zintzo afkiiuko dituzute nunnai. Ta beti gure Abefi maitera begira.

Edefak eman dizkigute, bai, bateri baño geyagori afotzak ,ufengo batean nola jardun jakin dezagun.

¿Afotzak efikoak baño lenago? Ba, orduan afotzakin bizitzera. Gu emen gaude, gogofez, aspaldi bizitzera. Gu emen gaude, gogofez aspaldi esan genun. "Gure abefian nai ezpagaitue, zertarako maite gu maite ez gaituztenak?" Baña ala ta gustiz ere, gure Ama Abefiak ez dauka efurik. Bai ordea anai askok. Ta beude, beude abek, berak ezpadira ere beren semeak, "barkilero", "trapero" edo "afiladore" ikusiko dituzte oraindik eta.

UR

ARRASATE

Afasatefko Kristaf-Euzkal-Ikastola Bazkunak bere lenengo ikastolaren urteufena ta bigafenaren onespen eta askundea ospatzeko il onen 15'erako geftatu duan egitaraua:

Ilaren 15'ean (larunbata). Goizeko 8'etan, ikastolako mutil gustien Jaunaftze-Meza.

9'etan ,ikasturteburuko azteñketak pafoki etxeko ikastolan.

11'terditan, euzko-ikastola befiaren onespen eta ikastolako umiei sari-banaketa. Amaitzeko "Aguf, jaunak" eta "Aingeru otoitza".

Afatsaldeko 4'etan, Gaste-Elkaftea'z itz bi; ta ondoren:

1'go. Amabost urtetik berako mutikoentzat aufeskulari-zeingeyagoka.

2'gn. Ezpatadantzari txikiak; iru taldek batera dantza egingo dute.

3'gn. Ikastola lau mutilen aftean pelota jokaketa: Etxebafia'taf S. ta Lafañaga 'taf J., Lasagabastef'taf J. M. ta Itufbe'taf J. aufka.

Gabeko 8'terditan, antzefki-jai edefa. Bafiola'taf Abelin jaunaren "Lagun txaf bat" antzeztuko dute Bergara'ko antzezlari ospatsuak, eta antzefki-atal bitaftietan poxpafiñak egingo dituzte jolas-abestiak.

MUXIKA

EGUN GOMUTAGAÑIJA.—Garila 9 'gafena egun gomutagafija muxikafentzat, eta egun ofetan Muxika'ratu ziran euzkotaf zintzo gustijentzat.

Afospide'taf Jon gure osalari ta jeltzale gurenetarikuaren omenez ospatu ziran jayak iñok amesetan be egin ezeban lako jai abefkoyak baxen matakofak ixan ziran ba.

Goxeko 10,30'gafenan "Ikustedef"et.k Ugafte'ra bitaftian Ariatza'ko txistularijak aufetik zirala ,onein ondoren Mundaka'ko txistulari-gorular. ta ezpatadantzarijak, mendigoxaliak eta enparauko emakume ta abeftzale, zaf eta gaste, 38 ikufin zabalik ebezela aneufkin bateko bid.a betetan ebela. ¡A bai zala edeftasuna! Eta gustijak etofzan Jel-matasunez... Gure Afospide apala baxen jeltzale aundijari matasuna erakusteko urduri. Eta gu geure Jel-irakasle mat.ak ainbeste matale zitula ikustiaz, pozez zoratzen.

Eleizkixunak, Ildegiko otoyak, gorulari ta ezpatadantzarijak, oturuntzea, omen-opalbena, Afospide jaunaren itzald.ja, afatsaldeko, itzaldi eta abafen zertzeladak, "Uribifafte'taf Ibon"ek "Egunekua"n imiñi dauzan ezkero, nik getu neikiana da.

Bizkai-Buru-Batzafa'ren idazki bat, eta Bermeo'ko (endoria) Bastefetxea'taf Polentzi jaunaren ufutidatz bat eta Gatika'ko abeftzaliena aftu zirala; gustijak Afospide'taf Jon jaunari bijotz-matasunik zintzoenaz zorun-opea egiten eutsoela.

Bermeo'tik asi ta Muxika'ra bitafteko efi gustijetatik abeftzale-aldrak etofi yakuzan; Lekeitio'tik asi ta Muxika'ra bitaftekuak, Durango'tik asifa Muxika'rafte-kuak eta Mungia'tik onantzakuakin be bardin jazo zan. ¡4.000 inguruko notintza ezta, gero, txofta makala basefi baten batzoko! Eta au... Bizkaya'n beste iru efitan euzko-jai abefkoyak ospatzen zirala. Ogibide gustijetakuak ikusten genduzan igandian, Muxika'n: osalari, lagikari, inkifieru, ereslari, itxas-gixonak eta abaf. Zaf eta gaste, gustijak poza ta matasuna erakusten ebela. Mungia'ko Atxabal'daf Endika abeftzale zintzo zafenetarikua, be, ementxe agufu gendun, Frunis'ko Muruaga'taf Peli abeftzale ezagunagaz batera; Durango ,Lekeitio, Bermeo, Bilbao, Gernika, Zornotza eta abaf, beste efi gustijetatik etofita emen agufu genduzan geure adizkide matagafijak ,asko be asko ixan ziran bana... gustijen ixenak emen iminteko... leku gitxi da ezkero, geure bijotzetan idatziko zafubeguz...

Aspalditxuban goguan ixan dogun omen-jai au, ain aundikiro ta zoruntsu ospatu dogunian ...poz-pozik aufkitzen gara muxikafok; au dala-ta guri lagundu dauskuzuben gustijoi, eskafikasko.

Abeftzaliok Afospide'kin
Zofdun aufkitzen gifian,
Zof au zelan bait ordaindu gendun
Igazi dan igandian;
Mataliari matasunagaz
Erantzun yakon unian...
Mafe ziranak mafe-lokafia
Betiko lotu zirian.

Abefijaren zorun osua...
Gura dabenak aufkitu,
Eskef-eskuma diran ctzayak
Garafu biafko ditu;
Gurenda ori loftu nai daunak
Iñoiz ein barik gogatu...
Jel-bide-ziaf elbururaño...
¡Afospide'ri jafafu!

ENBEITA'TAÑ KEPA

AZTEÑKETAK.—Igazi dan astian ospatu ziran Ariatza'ko auzo-ikastolako umien urteroko aztefketak; aztefkarijen ifaunai, edefto erantzuten eutsen, ikasliak. Au dala-ta zorun agufik asko aftu eban Goitisolo'taf Miren Andone, gure irakasle anderaño zintzuak; eskolumiak eta umien gurasuak oso pozik aufkitzen dira euren irakasle azkaf onegaz.

Ariatza auzunian
Ume ta guraso,
Euren irakaslia
Mafe dabe oso.

Eta Goitisolo'taf
Miren Andone'ri,
Mafeki dopaltsoc
Zorunak ugari.

Irakasle begiko
Zintzoen antzian,
Urtzi'k gorde zaizala
Zorun-baratzian.

PELO-MARI

IV' garren Euzko-Olerti-Eguna

Iparragirre olerkariaren omenez

Gauf, amabostan, ematen zaye asiera IV 'gafen Euzko-Olerti-Eguna dala-ta antolaturiko jayei.

Egitarau orokofetan iragafi bezela afatsaldeko 6'terditan txistubatzak emango biribilketa adierazlaz ufetxatarei ordu ofetatik eran uriya jai eguneko jantziyagaz jazten dala egun au aundikiro ospatzeko.

8'terditan, udal-eresbatzak biribilketa.

9'etan, "Edefena" pelotatokian Zumaya 'ko Euzko-Etxea'ko antzezlari yayoak antzeztuko dute Altzaga jaunak euzkeraldutako Piefe Loti'ren "Ramuntxo" antzefki-lan edera.

Ona emen banaketea:

"Lekaidaba", Albizu'taf Balendiñe.
"Pantxika", Manterola'taf Miren.
"Maritxo", Iraundegi'taf Miren Nekane.
"Dolores" ta "Pilar", Urbieta'taf Koikile.
"Justina" ta "Sor Valentina", Afizabalaga'taf Josebe.
"Ana Mari", Esteibaf'taf Karmele.
"Ramuntxo", Kamatet'taf Pantzeska.
"Itxua", Urbieta'taf Kauldi.
"Arozko", Segurola'taf Joseba.
"Apaiz jauna", Albizu'taf Martin.
"Florentino", Zubizafeta'taf Joseba.
"Sendagilea", Etxaniz'taf Saturnin.
"Lasafte anayak", Manterola'taf Bedifa ta Afizabalaga'taf Iñaki.

Txistulariak: Alzibaf'taf Jagoba, Urangа'taf Kepa, Esteibaf'taf Ander.

Ume batzuek

IPARRAGIRRE

Euzkel-Efiyak gizon andiyak, ugariyak izan ditu
Iparagiñe eratako bat ezin dezakegu ukatu.
Beti ibili zan geldifu gabe gitafa jo ta abestu
iñun egin zun gaitz aundiyena, auxe ixan zan. ¡Alailu!

卐 卐 卐

Edo-nor bezin fuerozalia; berua zun afk odola.
Gasterik gudara igesi zan ikastolara zijuala.
Askotan esan omen ziyoten gudarako gaste zala
bere erantzuna izatemen zan: Gaztia baña... ez makala.

卐 卐 卐

Etzekiyan zer zan bilduña. Etzan nekatzen lastefka.
Areriyorik ikusten ba-zun eratxitzen zun makilka.
Zauriyaz soña bete ziyoten azala kendu zatika;
baña an male zitun fueruak, amets ta amets zun bufuka.

卐 卐 卐

"Gernika'ko Arbola" egin zun guda amafu ondortan
euzkeldun orok ura entzuteko belauniko jaftzen ziran.
Euzkotafak esnatzen zitula españafak uaftu ziran
t'espetxera eraman zuten txapel-okefen erdiyan.

卐 卐 卐

Juiziuan agindu ziyoten juteko Euzkel-Efi'tik
eta jun zan amatxo agufiuz saminlasunez beterik.
Ludi gustiyan ibili zan da etzun izan zorionik
uñilasuna berakin beti, iñundik ez laguntzarik.

卐 卐 卐

Afpide bat zabaldu zuten txindi apuf bat biltzeko
bere lufera etofi zedin ezufak emen usteko.
Orixe izan zan bere ametsa etzan beñ-ere astuko
Jaun-Goikua'ren laguntza izan zun amets ori loftutzeko.

卐 卐 卐

Ufetxua zan jayotefiya bera geftuan bizi zan
egun askotan egurastean bere urira etofizen zan.
Ildakuan ere bere gorputza emen yortziya izan zan.
onela bere betiko ametsa oso-osorik bete zan.

卐 卐 卐

Bere izeneko enparantzan Udal-etxiaren aufian
bere irudiya jafifa dago edefgalu edefian.
Il ondorian eskeñi zayo omenaldiyak ludiyan
Jaun-Goikua'k ere omenduko zun saftuaz donokiyan.

ÑAÑI-GOTZON

Deunen-bixitza

Endika deuna agimenduna

Alemania-agimenduna ixan zan Endika deun onen jayo-epia eztakigu. Baviera'ko nagusija zan gaste zala, afeari jafatu leutsalako. III'gafen Oton il zala 1001'gafenan Alemania gustiko agimenduna autu leben.

Aginduten zufa zan: ezertxo agindu baño lenago aginkaya ondo oldoztuten leban, ukafa egiten leban ondo aginduteko ta Jaungoikua'ri ondo agintzeko eskafa leskatsan.

Bere okef egiñak uaftuten leutsezanai sari edefak emoten leutsezan. Beingo baten artz batzukaz ta eztiz estalduriko gixon bategaz egiten ziran jayak ikusi gura leuzan. Popa lekaidiak jakin lebanian etxakon atsegin-ixan eta agimendunagana juan zan. Agimendunak ondo baño obeto aftu leban uafpena. Saritzat ,lekaipuruba zalako, bere lekaipuru ixena emon leutsan.

Uskuftza aldeztuten azkafa zan: txadonak-eta iragifeko amaigabeko ukafak egiten leuzan, baña eratsita leguazanak befiragifeko. Bere meupian leguazan zinge gustijai gudea-egin leutsen.

Batu ziran, ba, bere aufkako aginfarijak: gudarozte ikaragafijoi leben. Endika deunak Merseburg'eko txadona leguan toki-tokijan geldifu zan, eta Laurentzi deunari gudakea irabaziko ba'leban bere aintzaz ta omenez txadona befiragiko lebala.

Bere gudarozte gustijak autoftu ta jaunaftuteko agindu leban: ori eginda iñoren bilduf-baga arerijuak joteko. Gudakean legozala Adiran, Gorka ta Laurentzi deunak agefitu yakezan gudarijai: ikufkantz ofegaz adoretuta-edo Polonia, Bohemia ta Moravia'ko gudaroztiak zatifu lebezan, gixon bat galdu barik agimendun deunaren gudaroztietan. Laurentzi deunari eskafak egin leutsazan eta abindu leutsanetz, bere omenez Merseburg'eko txadona befiragi, be, bai.

Bere asmoz irazi zan Bambergo'ko gotefkija: Kepa ta Paul beldubak eta Gorka ziñopea dira bere zaindarijak.

Bestien zer esanakafik Kunegunde'gaz ezkondu zan baña beti garbifasuna ausi barik bide ixan ziran.

Italia'ra juan zan Doipuru-aulkija VIII 'gafen Bedifa'ri biguftuteko. An leguala afimiña etofi yakon. Bedifa deunaren ilobira juan zan osasuna loftuteko. Egun arefan ilobi atandik Bedifa deunaren gorpuzkiñak ostu egin lebezala zabaldu zan: ofegafik eztabaidea softu zan Endika'ren goguan. Ofegafik baña otoiegin leban. Lo-leguala Bedifa deuna ikuskantzez ikusi leban aiztotxo bategaz puxikea edeki, afija atera ta Endika'ren eskubetan iminfen. Endika iratxaftu zala min barik eta afija eskuban leukala aufkifu zan .Bedifa deunari eskafak egin ondoren bedifafen lekaretxe gustijai sari aundijak egin leutsezan.

Ekandunetan argi-argija zala Jauna'ren besuetan il zan befogeta bost urte leuzala.

AGAREL

Euzkeraren aberastasuna bear dan bezela egin-ezkero

Bein baño geyagotan entzungo zenduten, gure euzkeraren arerioai, esaten, euzkerak ez duala ezer balio, Tolosa'koak eta Oñate 'koak ez dutela berdin egiten, eta ez dakit zenbait geyago ,baño ori esaten duan guziai ziur ,zalantza gaberik esan daikiogu, euzkera beste izkuntzak baño ere gafantzi aundiagoka dala.

¿Zergafik ez diran ba, uleftzen Tolosa 'koak eta Oñati'koak? Galdetu'ko dizue, baten batek Eta zuek erantzun beaf diozute, esanaz, euzkaldun guziak ondo baño obeto bata besteakin uleftzen gerala, naiz da Tolosa'k eta Oñati'k oso berdin ez egin euzkeraz, ta.. ez al da, berdin geftatzen, Madrid eta Sevilla'kin?... ta ori ikastolak dituztela... eta gu... ikastolarik gabe...

Esan degun bezela, euzkera, berez aberatsa da, baña aberastasun ori beaf lekuan agefitzeko ,euzkera garbian egin beaf degu itz, eta esango dezute, zala dala euzkera garbian itz-egiten, bai, egia da baña ofeaitio, askotan aldezakegula itz askotan eta askotan euzkera aftean efderazko itzak saftzen degu ,eta ori nai degulako... edo lotsatu egiten geralako...

Askotan esan oi degu... "Biaf comulgatzen noa" zergatik esan ez "Biaf jauna aftzera noa", beste batzuetan "Gauf goizean matiña daukagu" eta esan beaf da "Gauf itzaldia daukagu"... eta "Ekafizu cafe bat". "Ekafizu akeita"... eta ofela itz asko eta asko, eta geuk euzkeraz dakiguzan itzak, efderaz egiten badegu, nola ikasi euzkera beaf dan bezela?

Askok uste dute, ez diola ajolik efderaz eta euzkeraz nastuta egin-afen, beaf dan bezela uleftu ezkero...

Ez... jun zaite Madrid'era eta esaizu enparatzan...

"Señores: Hoy ,a las siete y media, con el baimen del alkate jaun, tendrá lugar en la Puerta del Sol grandes batzafes, y a las nueve un gran oturuntza."

Bafe-egingo lukete denok, ba, ori bezin bafegafia eta negafgafia da, emen ibiltzen diran, efderakadak entzun da. Egin bada beti euzkeraz, eta ofetarako idazti edo liburuak nun nai bilatuko dezute.

MURUMENDI

INGI BILDEGIA
Papelería del Oria
MORAIZ'TAR JOSEBA MIRENA
Teléfono, 154. TOLOSA

Léase EUZKADI

Abertzale bat gitxiau!

Oftzia argi ta eguzkijak difdiratuten ebala goxaldu eban eguna... baña edoi baltzak zerun estaldu eben geuretzat eta edoi zuri batek bere erdijan afturik; ila onen 10'gn. afatsaldeko 5'etan Jaun-Goikua'k beraganatu eban Mutio'taf Juli 19 urteko mutil kistaf eta abeftzale zintzua bere bixitzan ixan danen gogua. (G. B.)

Gaste-gasterik ikusten zan Juli'gan, kistaftasun bixija ta euzkel-zaletasun aundija.

Eleiz-Gastediko bazkidia be, ba'zan da, nun safi itzaldijak emoten ebazan, bere efeztasun aundi ta itz-samufagaz, entzuliai burubak argifu ta biotzak sendoturik.

Abeftzaletasunian bere buru argi, itz-efes eta bijotz samufagaz ,safi askotan bere lagunok ordubak igaro ixan-doguz berari entzuten geure ama Euzkadi'ganako goralmenak.

Buruz argia ta bijotzez matakofa zan legez ,gernikaf gastedi gustijen aftian ona matatuba zan.

Aguf, Juli, Eleiz-Gastedi ta Euzkadi'ren -alde lanerako biafen ziñan orduban, denok emen itxirik aguftau zara geugandik eta donoki ofetan Sabin geure irakasle ain matiaren onduan jezafi...

Emen izten dozuz Eleiz-Gastedi ta "Txara-Txara" lantegi bi onek zeintzuben izpiluba ta jafaibidia ziñan... Jaun-Goikua'k bidalduko-aldau beste bat zeure leku au betetako.

Zeure lagunok ezin gara zeugandik ufidu ta "Txara-Txara" aldradiak eskifiako bureztuna bost gasten aftian aufetik dala, lau abeftzalerik trebienen bizkafetan ilobirafte oruan zafubez... baña an betiko besarkada bat negaf-malkuak ixurijaz batera emonik, atzetik doyan gaste-aldra gustijak izten zafuz geyago ez ikusteko... euri ta ekaitzak etofi ta aztinduko zafubez ilobitxu ofetan... baña zeure gogua donokijan dago nundik gomutauko zarian geugaz eta geure abefi gaxuagaz, eta geure zeure ganako mafasun-gomutia biotzian josita.

Aguf, Juli... gero afte...

Bere sendi atsekabetubak aftu begi "Txara-Txara" ta abeftzale gustijen tamal -agufik sutsubena.

IBAI-GANE

GOBIERNO CIVIL

El gobernador no recibió a los periodistas

El gobernador civil no recibió ayer a los periodistas, los cuales tenían gran interés en la diaria entrevista por los sucesos que recogemos en otro lugar de este número. Este interés quedó defraudado con la decisión del señor Sevilla de no recibirles, como otros días.

El nuevo secretario del Gobierno civil, don Cipriano Fernández de Angulo y Semprún, nos envía un atento saludo comunicándonos la toma de posesión de su cargo. Correspondemos a su saludo gustosamente y le deseamos éxito en su función.

La sección de Agricultura, Industria y Comercio de Bizkaya ha fijado el precio máximo de las harinas panificables para el mes actual en 65,50 pesetas los 100 kilogramos, con envase, en fábrica.

Asimismo, y en virtud del expresado precio alcanzado por las harinas, se establece el del pan familiar a 0,65 pesetas el kilogramo.

LUIS ZATARAIN
MEDICO-DENTISTA
Hernani, 2., 1° - DONOSTIA

Dr. Antonio Echeto
Enfermedades de la infancia
Prim, 19. :: San Sebastián

Gran Garage Moderno
Reparaciones, suministros y accesorios
Calle Iparraguirre. Teléfono. 10-7-54
SAN SEBASTIAN

PONSOL, S. L.
Fundada en 1838
Sombreros y boinas
NARRICA, 4. DONOSTIA, 10.876

Ferretería, cristalería y loza.
Echeverría Hermanos
Calle de Urbieta, 10. Tl., 1-18-84
DONOSTIA

A. BARANDIARAN
Toda clase de herramientas y maquinaria para talleres, minas y obras
MAYOR, 5. — DONOSTIA

Imprenta. Papelería
Artículos de escritorio
Larramendi, 19.
Teléfono, 11.900
DONOSTIA

VIUDA DE IGNACIO ZUBASTI
Ropa blanca Corsetería Novedades Ca miseria Corbatería
Urbieta, 24. DONOSTIA. Tl. 117-11

DOCTOR BENITO PETSCHEN
Partos. Enfermedades de la mujer
Rayos X. Diatermia.
Prim, 17, entlo. T. 12.761. De 3 a 8
San Sebastián

MIGUEL LARRE
MEDICO - DENTISTA
Churruca, 14, primero. Teléfono, 15.362.
DONOSTIA

Mugertza Igokiak
Zabaleta, 12 ta 14.
12-763 urus. — DONOSTIA
Onenak eta

La Nueva Vienesa
PANADERIA DE LUJO
San Martín, 27. Donostia. T. 10.591

Manuel Kutz y Echave
PIEL Y SECRETAS
Consulta: once a una y tres a seis
Idiaquez, 2, enlo. San Sebastián

DROGUERIA MODERNA
Urruzuno'tar Julene
Peña y Goñi, 5, y Usandizaga, 7
Teléfono, 13.060. DONOSTIA

IGNACIO ARTECHE ARAMBURU
Enfermedades de la infancia. Puericultura
Lunes, miércoles y viernes. De tres a seis
General Echagüe, 15, entresuelo. T. 1-62-34

PAPELES PINTADOS
URRUZOLA
Garibay, 7. DONOSTIA. Tel. 10.324

BAR RESTAURANT
CASA JOSE MARI
Servicio a la carta. Platos clásicos del país. Fermín Calbetón, 38. Teléfono, 14645
DONOSTIA

BAR RESTAURANT
CASA VICTOR
Servicio a la carta y por cubiertos. Plato del día, especial de la Casa.
Pescadería, 8. Teléf. 12980. DONOSTIA

La Villa Mouriscot
JOSTUNA KUTXA
Especialidad en guantes y velos
Urbieta, 13. — DONOSTIA

Almacén de Vinos y Licores
HIJOS DE F. MARTINEZ
Narrica, 29. Puerto, 24. Despacho central: Urbieta, 52, DONOSTIA. Teléf., 10.886

EN DONOSTIA
Tejidos y medias
Casa Florencio
Churruca, 5

ASCENSORES MUGUERZA
Gordoniz, 5
11-496 teléfono. — BILBAO

TXIKORO (ACHICORIA) BAKE
Fca. de escopetas finas de caza AGIRRE y BASTIDA
Eizara'ko suizkilu berezijen olea
Eibar. — Gipuzkoa

EUZKELDUN TXAPEL OLA
Boinas Elósegui
TOLOSA